



Gradu Amaierako Lanaren Arautegia (GRALa)

Haur Hezkuntzako Gradua
Lehen Hezkuntzako Gradua
Gizarte Hezkuntzako Gradua

(Azken bertsioa Fakultateko Batzarrak onartua 2019ko abenduaren 18an)

AURKIBIDE OROKORRA

ZIOEN AZALPENA	2
1. artikulua. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.....	2
2. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA	3
3. artikulua. ZUZENDARIA.....	4
4. artikulua. GRALaren GAIAREN AUKERAKETA ETA ESLEIPENA	5
5. artikulua. MATRIKULA ETA DEFENTSARAKO DEIALDIAK	6
6. artikulua. EBALUAZIO EPAIMAHAIA.....	7
7. artikulua. GRALaren AURKEZPENA ETA DEFENTSA	7
8. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.....	8
Xedapen indargabetzailea	10
Azken xedapena. INDARREAN JARTZEA.....	10

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, III. kapituluaren 12. art., 3. atalean, Gradu ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du “ikasketa horietan gradu amaierako lan bat egin eta defendatu” beharko dela, eta 7. atalean honakoa gehitzen du: “Amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango ditu, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko da eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko da”. Ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen, eta, beraz, unibertsitate bakoitzak arautu beharko du, bere autonomia baliatuz.

Uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak, 1393/2007 Errege Dekretua eraldatu egiten duenak, irizpide eta prozeduretan arintasun eta eraginkortasun handiagoa emateko beharrezko doikuntzak barneratu zituen.

Testuinguru honetan UPV-EHUK, Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegia onartzen du, Gobernu Kontseiluak 2011ko martxoaren 10ean onetsita (2011ko apirilaren 19ko EHAAn), Gradu Amaierako Lanak modu homogeenan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko helburuarekin. Berori onetsi ostean, arautegiak izan duen aplikazioaren esperientziaren argitara, zenbait aldaketa egin beharra ikusi da, eta hain zuzen ere horretarako onetsi zuen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 12an, indarrean dagoen GRALaren Arautegia (2015eko apirilaren 13ko EHAAn argitaratua). Bertan, arau orokorrak ezarri ziren, nahiz eta titulazio bakoitzak izan ditzakeen berezitasunak kasuan kasuko ikastegietako batzarrek aztertu eta behar bezala arautu eta argitaratu beharko dituzten. Hortaz, arautegi horrek, orokorra izanik, malgutasun nahikoa emango dio ikastegi bakoitzari prozedura desberdinak orokorrean erabili edo horiek ikastegiko espezifikotasunei egokitzeko (1.4. artikulua).

Aipatutakoaren babespean, honako Arautegia onartzen da

1. artikulua. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

- 1.1. Arautegi honek Bilboko Hezkuntza Fakultatean ematen diren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako graduetakoko Gradu Amaierako Lanak (GRALa) definitzeko, egiteko, defendatzeko, kalifikatzeko eta tramitatzekeo irizpideak jasotzen ditu.

- 1.2. Arautegi honen edukia, besteak beste, ikasleen ebaluazio sistemaren, kredituen aitortpen eta transferentziaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

2. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA

- 2.1. GRALa gauzatzeko ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin beharko du zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituen ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko ditu.
- 2.2. Graduari lotutako gaitasun orokorrak¹ aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arloko datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da GRALa, ikasleak gizar-teari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.
- 2.3. GRALa defendatu eta ebaluatu ahal izateko, ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela egiaztatu beharko da. Hortaz, GRALari dagozkion kredituak izan ezik titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak gaindituta izan beharko ditu ikasleak.
- 2.4. Nolanahi ere, ezingo dira aitortu GRALari dagozkion kredituak.
- 2.5. GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera, baldin eta bestelakorik zehaztu ez bada Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan.
- 2.6. Ikastegiko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak, GRALaren ikasturteko kudeaketa egutegia eta GRALaren Gida onartuko ditu, berau egin eta defendatzeko prozedura jasoko duena.

¹ Ikusi graduari lotutako gaitasunak GRALaren Gidan

3. artikulua. ZUZENDARIA

- 3.1. GRALa kasuan kasuko graduan eskolak ematen dituen sail bateko irakasleek edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoek zuzenduko dute.
 - 3.2. GRALa pertsona batek baino gehiagok zuzendu ahal izango dute.
 - 3.3. Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahal izango dituzte GRALak, baldin eta graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide den edo irakasten den ikastegiari atxikita dagoen zuzendarikide bat badago.
 - 3.4. Ikasleak GRAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den beste erakunderen batean egiten badu, praktiketako hitzarmen baten barruan, unibertsitatekanpoko pertsonak zuzendu ahal izango dute GRALa, baina kasu horretan 3.1. ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.
 - 3.5. Ikasleak Erasmus Programaren edo bestelako mugikortasun-programaren baten babesean gauzatzen badu Gradu Amaierako Lana, harrera-unibertsitateak izendutako bertako zuzendarikide batek lagundu ahal izango du zuzendaritza lanean; betiere, honako araudi honetako 3.1 atalean aipatutako baldintza guztiak betetzen dituen zuzendari bat izanez gero.
 - 3.6. Irakaslearen ardura izango da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla bermatzea, baita lanaren jarraipena egin eta hari buruzko txostena idaztea ere. Txosten hori GRALaren zuzendariak GAUR plataforman utzi beharko du.
 - 3.7. Zuzendariaren esleipena ikasturte akademiko baterako egingo da. Behin epe hori pasatuta, ikasle eta irakaslearen arteko adostasuna balego, esleipena luzatzeko aukera dago, edo unilateralki, uko egin ahal izango zaio.
 - 3.8. Behin esleipena bukatuta, irakasleak behin betiko edo epe luzerako baja izango balu, irakaslea atxikita dagoen sailak beste zuzendari bat izendatuko du, gehienez ere 10 eguneko epean.
- Erabakiaren berri emango dio dagokion ikasleari eta baita fakultateko zuzendaritzari ere.

4. artikulua. ESLEIPENA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA

- 4.1. Sailek edota ikasleek gaiak proposatuko dizkiote Ikastegiko Batzarrari edo, hala badagokio, hark eskuordetutako batzordeari.
- 4.2. Ikasleek egindako proposamenak, behar bezala arrazoituta egon beharko dira ikuspegi teoriko-praktikotik eta Graduari lotutako gaitasunei egokituta². **Ikasleak zuzendari batekin adostu behar du proposamena eta ondoren GAURen grabatuko du, ezarritako prozedura jarraituz.**
- 4.3. Gai proposamenik aurkeztu ez duten ikasleek, edo aurkeztu arren gaia onartu ez zaien ikasleek, ikastegiak egingo duen eskaintza orokorretik hautatuko dute gaia eta horri lotuta dagoen tutorea.
- 4.4. Fakultateko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak ikastegiak duen eskaera asebetetzeko beharrezkoak diren gaien estimazioa egingo du, hizkuntza eta kopurua kontuan hartuta. Horren arabera eskatuko die sailei haien eskaintza osa dezaten.

Sail bakoitzari egingo zaion eskaera, hartara atxikita dagoen irakasle kopuruaren arabera egingo da. Hala ere, honako xehetasun hauek hartuko dira kontuan:
 - 4 ordu baino gutxiagoko kontratua duten irakasleak ez dira zenbatuko
 - Ikasturte bereko abenduaren 31 baino lehen erretiroa hartuko duten irakasleak ez dira zenbatuko
 - 4 edo 6 orduko kontratuak plaza 1/2 bezala zenbatuko dira
 - Bi kanpusetan dozentzia duten irakasleak plaza 1/2 bezala zenbatuko dira.
 - Ordezkapenak ez dira zenbatuko baina bai irakasle titularrak
- 4.5. Sailaren ardura izango da ziurtatzea bere eskaintzan proposatutako gaiak Graduan lortu beharreko gaitasunekin koherenteak direla.
- 4.6. Sailek eskainitako gaien zerrenda horretarako prestatuko den gune birtualean argitaratuko da, ikasleek gaien berri izan dezaten gaiaren autoesleipena egin baino lehen, gainontzeko matrikula egiteko momentu berean.

² Ikusi *Ikasleen gai proposamenak nola egin* dokumentua

- 4.7. Ikasle bati GRALaren gaia eta zuzendaria esleitu ahal izateko, gutxienez, graduako 168 kreditu gairik izan beharko ditu, eta ikasketa plana bukatzeko eskatzen diren irakasgai guztiak matrikulatuta izan beharko ditu nahi eta nahi ez, GRALa bera izan ezik.
- 4.8. Fakultatearen eskaintzatik GRAL gai eta zuzendari autoesleipena egiteko lehentasuna ezartzeko irizpideak, matrikula egitera deitzeko erabiltzen diren irizpide berberak izango dira³.
- 4.9. GRALa eta zuzendaria ikasturte baterako esleituko dira gehienez ere; epea amaitzean, eta bi aldeak ados egonez gero, esleipena berri izango da.
- 4.10. Ikastegiko Batzarrak erabakiko du ikasturte hasieran, lan eta tutore berriak esleitzeko epemuga.

5. artikulua. MATRIKULA ETA DEFENTSARAKO DEIALDIAK

- 5.1. Araudi honetako 2.3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen ikasleriak, GRALa matrikulatu ahal izango du, dagozkion kredituen arabera (12 kreditu) prezio publikoak ordainduz. GRALaren matrikula, ikastegiak GRALaren kudeaketa egutegian zehaztutako epearen barruan egingo da eta GRALaren Gidan ezarritako prozedura jarraituz.
- 5.2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturteko bi deialditan aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako eskola egutegian zehaztutakoarekin bat eginez. GRALa unean uneko ikasturtean ezarritako deialdietan defendatu ez edo gairik izan ez duten ikasleek berriro egin beharko dute matrikula.
- 5.3. Deialdi jakin batean defendatzeko, ikasleak GRALaren defentsa eskatu beharko du GAUREn, defentsarako deialdia eta hizkuntza hautatuz (lana egin den hizkuntza berbera).

³ Ikusi *Graduko eta lehen eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegia 27. Art*

- 5.4. GRALaren kudeaketa egutegian defentsak egiteko datak zehaztuko dira. Defentsak otsailean, ekainean eta irailean izango dira. Halaber, matrikula egiteko epemugak ezarriko dira.

6. artikulua. EBALUAZIO EPAIMAHAIA

- 6.1. Ikastegiko Batzarrak edo, hala badagokio, eskuordetutako batzordeak ezarritako moduan eratuko dira ebaluazio epaimahaiak, gradu bakoitzean matrikulatutako ikasle kopurua kontuan hartuta. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetan.
- 6.2. Epaimahai bakoitza hiru kidek eta, gutxienez, ordezeko batek osatuko dute; guztiak izango dira gradua irakasten den ikastegiko irakasleak.
- 6.3. Fakultatera atxikitako edozein IIP, ebaluazio epaimahaietako kide izendatua izan daiteke.
- 6.4. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat, idazkari bat eta batzordekide bat egongo dira, eta horrela jardungo dute beti. Horiek izendatzeko irakasle kategorია eta antzintasuna hartuko dira kontuan.
- 6.5. GRALaren zuzendaria ezin da izan, lana ebaluatuko duen epaimahaiaren partaide.
- 6.6. Epaimahaien izendapena Ikastegiko Batzarrak egingo du defentsarako deialdi bakoitza baino aski lehenago.
- 6.7. Epaimahaien osaera izendapenaren hurrengo egunean bertan jakinaraziko da.

7. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

- 7.1. Ikasleek lanaren kopia digital bat utziko dute ADDI artxibo digitalean, pdf formatuan. Hala ere, lana beste bide ofizialen bidez aurkeztea eska dakiokete ikasleari.
- 7.2. Epaimahaikideek ADDIren bidez eskuratuko dituzte ebaluatu beharreko lanak.

7.3. Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GRALa, eta defentsa saioa publikoa izango da.

Ikasleak GRALa mugikortasun programa baten barnean egingo balu, lanaren defentsa harrera unibertsitatean egin ahal izango du, beti ere, harrera unibertsitatea eta UPV/EHUren artean eman beharreko baldintzei buruzko akordioa balego.

7.4. Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera, graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal izango da lana, hizkuntza horietan jarduteko epaimahaiak osatzeko gaitasuna baldin badago. Nolanahi ere, GRALa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

7.5. Ikasle bakoitzak gehienez ere 15 minutu izango ditu GRALaren defentsa egiteko, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide, ohar eta iradokizunei erantzun beharko die, gehienez ere 25 minutuz.

7.6. GRALak ADDI artxibo digitalean gordeko dira ikasleak lana gainditu eta hurrengo ikasturtearen amaierara arte. Epe hori amaitzean, salbu eta errekurtsoren bat ebazteke baldin badago, suntsitu egin ahal izango dira.

7.7. Behin defentsa eskatuta, GRALA ez bada defendatzen, "Ez aurkeztua" kalifikazioa jarriko da.

8. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

8.1. Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren edo zuzendarien txostena eta kalifikazioa ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du ikasketen gidan GRALari buruz argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraiki.

8.2. Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. GRALaren zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

8.3. Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

- Ez aurkeztua (EA)
- 0 - 4,9: Gutxiegi (G)
- 5,0 - 6,9: Nahikoa (N)
- 7,0 - 8,9: Oso ongi (OO)
- 9,0 - 10: Bikain (B)

Ebaluazio epaimahai bakoitzari dagokio, Akademia Antolakuntza Batzordeari proposatzea Ohorezko Matrikula aipamena jasotzeko ikasleen zerrenda, beti ere, 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu baldin badute. Proposamenak ikusita, Akademia Antolakuntza Batzordeari dagokio, Ohorezko Matrikula aipamen berezia ematea, gradu eta deialdi bakoitzean aurkeztu diren ikasleen % 5 gehien jota. Epaimahaiko idazkariak, Akademia Antolakuntza Batzordearen erabakia jakiten denean, ohorezko matrikula jasotzeko proposatutako ikasleen aktak **itxiko ditu**.

8.4. Epaimahaiaren bukaerako nota epaimahaikide guztien kalifikazioen bataz besteko aritmetikoa izango da. Kideek emandako puntuazioen artean hiru punturen edo gehiagoren aldea badago, kalifikaziorik altuena eta txikiena baztertuko dira.

8.5. GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira, baina, epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaia berak egingo du eta ondoren Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena. Ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko errektoreari.

8.6. GRALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki itxi beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzea.

8.7. Artikulu honen aurreko puntuetan zehaztutako gainontzeko egoera guztietarako Gradu Amaierako Lanaren Irakaskuntza Gidaren Ebaluazioan adierazitakoa beteko da.

8.8. Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioak urriaren 31 baino lehen agertu behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen da aurreko GRALari buruzko arautegia, orduko Eskola Batzarrak onartua, 2016ko azaroaren 11n.

Azken xedapena. INDARREAN JARTZEA

Arautegi hau Bilboko Hezkuntza Fakultateko Batzarrak onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.